AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4814

AGINDUA, 2012ko urriaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duena.

Urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuak, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren xedapen gehigarriak ezarritakoari jarraituz, ezartzen du hezkuntza-arloko administrazioek, bi urtean behin, lekualdatze-lehiaketak antolatu behar dituztela estatu mailan. Lekualdatze-lehiaketa horietan parte hartu ahal izango dute edozein hezkuntza-administraziotako karrerako irakasle funtzionario guztiek, baldin eta horretarako baldintzak betetzen badituzte. Hala, interesdunek lehiaketa guztietan parte hartu ahal izango dute ekintza bakarraren bitartez, ebazpenaren ondotik Gorputz bakoitzean destino bakarra lortuz.

Irailaren 27ko ECD/2107/2012 Aginduak, 2012-2013 ikasturtean zehar deitu beharreko estatu mailako lekualdatze-lehiaketei ezartzeko prozedurazko arauak jasotzen ditu. Lekualdatze-lehiaketa horiek Hezkuntzako Lege Organikoak jasotako hezkuntza sistemako irakasgaiak ematen dituzten irakasle funtzionarioei, hezkuntzako administrazioaren Ikuskatzaileei eta Hezkuntzako Ikuskatzaileei zuzentzen zaizkie.

Arau horren helburua da estatu mailako lekualdatze-lehiaketak modu koordinatuan egitea ahalbidetuko duten prozedurazko arauak ezartzea, irakasle funtzionario guztiek berdintasun egoeran parte hartuko dutela bermatuz.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egitea.

2.– Deialdi hori arautuko duten oinarriak onartzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ondorioak.

Agindu honek eraginak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko

Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 26a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

OINARRIAK

Lehenengoa.– Deialdia.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egin da.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren Kidegoa.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Plastiko eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoa.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen Kidegoa.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoetako Katedradunen Kidegoa.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradunen Kidegoa.

2.– Era berean, lehiaketa honetan parte hartzera dei egiten zaie ere goian zerrendatutako irakasleen kidegoetan praktikak egiten ari diren langile funtzionarioei.

Bigarrena.– Eskaintzen diren lanpostuak.

1.– Lekualdatze-lehiaketa honek eragiten dien Kidegoetako plaza hutsen behin-behineko eta behin betiko zehaztapena irailaren 27ko ECD/2107/2012 Aginduaren bosgarren atalean aurreikusitako datetan egingo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian argitaratuko da: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

2.– Lekualdatze-lehiaketa honetan, zehazten diren plaza edo lanpostu hutsak eskainiko dira; horien artean jasoko dira, gutxienez, 2012ko abenduaren 31ra arte hutsik geratu direnak eta Kidego bakoitzeko lehiaketa ebazterakoan sortzen direnak. Horiez gain, derrigorrezko erretiroak direla-eta, 2012-2013 ikasturtea amaitu artean hutsik geratzen diren lanpostuak ere gehitu ahal izango dira. Guzti horiek eskainiko dira, beti ere, baldin eta hezkuntzarako plangintzan lanpostu horiek mantentzea aurreikusita badago eta zentro bereko irakasleen egonkortasunari buruz finkatzen diren irizpideen arabera.

3.– Hutsik geratzen diren lanpostuen definizioan akatsen bat gertatzen bada edo eskolako plangintzan aurreikusi gabeko funtzionamenduan duen posturen bat bada, dagokion akatsen zuzenketa argitaratuko da.

4.– Lanpostuen zerrendaren arabera, langileak postua lortzen duen zentroak berari atxikitako beste herri batzuetako zentroetan eskolak emateko aukera eskaintzen badu, eskatutako postuari atxikitako edozein herritan eman beharko du zerbitzua. Lanpostuen zerrendan adierazi egiten da zeintzuk diren egoera horretan dauden postuak.

Hirugarrena.– Maisu-maistren Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak.

1.– Dagokien espezialitateko titulartasuna egiaztatuz gero, ondoko postuetarako eskaera egin ahalko dute: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa, Atzerriko Hizkuntza: frantsesa, Euskara, Gorputz Heziketa, Musika, Pedagogia Terapeutikoa, Entzumena eta Hizkuntza. Titulartasuna egiaztatu ahal izango dute azaroaren 4ko 1594/2011 Errege Dekretuko 4.2 artikuluan aurreikusitako bideak erabiliz kidegoan sartzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenek, edota urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen osagarriaren arabera horretarako gaituak izan direnak, aipatutako Errege Dekretu hori indarrean jarri aurreko araudiari jarraituta.

2.– Aholkulari-lanpostuak eskatu ahal izango dituzte jarraian adierazten diren baldintzen artekoren bat betetzen duten maisu-maistrek:

a) 1364/2010 Errege Dekretua indarrean jarri aurretik zegoen araudiaren arabera Aholkulari lanpostua betetzeko gaituta egotea.

b) Hezkuntza Bereziko Arloan edota Pedagogia Terapeutikoan gaikuntza dakarten titulazioetako baten jabe izatea edo, era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1993ko urriaren 14ko Aginduaren arabera, aipatu Arloan gaikuntza dakarten egoeretako batean egotea.

c) Ondoko hauetan lizentziaduna izatea: Psikologian; Pedagogian; Psikopedagogian; Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan, psikologiaren alorreko edozein espezialitatetan; Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan, pedagogiaren alorreko edozein espezialitatetan; Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan, hezkuntza-zientzien alorreko edozein espezialitatetan; Filosofia eta Letretan, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien alorrean, psikologiako espezialitatean; Filosofia eta Letretan, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien alorrean, hezkuntza-zientzien espezialitatean; Filosofia eta Letretan, psikologiaren alorrean; Filosofia eta Letretan, pedagogiaren alorrean; Filosofia eta Letretan, hezkuntza-zientzien alorrean.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1993ko urriaren 14ko Aginduaren IV. Eranskinean zerrendatutako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatu edo baliokidetutako aholkulari ikastaroren bat gainditu izana.

3.– Helduen Hezkuntzako postuak (HHE).

Honako lanpostu hauek eskatu ditzakete: Helduen Hezkuntza, hasierako ikasketak; Helduen Hezkuntza, ingelesa; Helduen Hezkuntza, frantsesa. Horretarako, maisu-maistrek Lehen Hezkuntza, Ingelesa edo Frantsesa espezialitateko titulartasuna egiaztatu beharko dute edo, bestela, 1364/2010 Errege Dekretuko laugarren xedapen gehigarriaren arabera, aipatu Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudiaren arabera lanpostu horietan aritzeko gaituak izan zirela egiaztatu beharko dute.

4.– Pedagogia Terapeutikoko postuak HHEn eta irakaskuntza ertainetako zereginen ikaskuntzarako geletan.

Helduen Hezkuntza, Pedagogia terapeutiko eta Hezkuntza Ertaineko ikastetxe publikoetan zereginen ikaskuntzarako geletan Pedagogia terapeutikoko lanpostuak eska ditzakete Pedagogia terapeutikoa espezialitatearen titulartasuna egiaztatzen duten maisu-maistrek, bai eta 1364/2010 Errege Dekretuko laugarren xedapen gehigarriaren arabera, aipatu Errege Dekretua indarrean jarri aurretik zegoen araudiaren arabera aipatu espezialitateko egokitzapena dutenek ere.

5.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetarako lanpostuak.

Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko lehen Xedapen Iragankorrean xedatuta dagoenaren arabera, aipatu Legea indarrean jarri aurretik derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen bi mailetako lanpostuetara behin betikoz atxikitako maisu-maistren Kidegoko funtzionarioek, aipatu lanpostuetan eperik gabe jarraitu ahal izango dute eta Hezkuntza Administrazioak horretarako xedatutako lehen bi maila horietako lanpostu hutsekin lotutako mugikortasunaz gozatu ahal izango dute. Halaber, gaituak dauden haur eta Lehen Hezkuntzako plaza edo lanpostuetarako mugikortasuna balia dezakete eta, horiek lortuz gero, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan etorkizunean egon daitezkeen lanpostu hutsak lortzeko aukerak galduko lituzkete.

Behin betikoz atxikitako lanpostua ezabatuko balitz, Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan, aipatu lanpostuetan destino berri bat lortzeko lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko aukera izaten jarraituko lukete.

Nolanahi ere, lanpostu horien eskabidea egiterakoan, egokitzapena egiaztatu beharko dute ondoko baliokidetasunak kontutan izanda:

Ondoko alorretan habilitazioa duten irakasleak	DBH-ko lehen eta bigarren mailetako zein lanpostutarako duten habilitazioa
Filologia, Gaztelania	Gaztelania eta Literatura
Filologia, Gaztelania eta Ingelesa	Ingelesa
Filologia, Gaztelania eta Frantsesa	Frantsesa
Filologia, Euskara	Euskara eta Euskal Literatura
Matematika eta Naturaren Zientziak	Matematika
	Natura-zientziak
Gizarte-zientziak	Gizarte Zientziak, Geografia eta
	Historia
Gorputz Hezkuntza	Gorputz Hezkuntza
Musika	Musika

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako lanpostuetara behin-betikoz atxikia egoteaz gain aipatzen diren baldintzetakoren bat betetzen duten maisu-maistrek eskatu ahal izango dituzte lehen bi mailei dagozkien ondorengo arloetako lanpostuak:

a) Teknologia:

– Honako titulu hauetakoren bat edukitzea: Goi-mailako Ingeniaritza, Arkitektura, Fisika, Kimika edo Zientzietako Lizentziatura, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa, Itsasgintza Zibileko diplomatura edo bigarren graduko Lanbide Heziketa edozein arlotan, administraziokoa, osasunekoa edo etxekoa izan ezik, edo

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak antolatutako Oinarrizko Teknologia Ikastaroetan, edo hark homologatu dituen bestelako ikastaroetan parte hartu izana (250 ordukoak edo gehiagokoak).

b) Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza:

– Ondoko titulazio hauetakoren bat edukitzea: Goi-mailako Ingeniaritza, Arkitektura, Arte Ederrak, Ingeniaritza Teknikoa, Arkitektura Teknikoa edo Bigarren graduko Lanbide Heziketa, Delineazio arloa.

6.– Pedagogia Terapeutikoko eta Entzumena eta Hizkuntzako postuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetako Pedagogia Terapeutikoa eta Entzumena eta Hizkuntza lanpostuak eskatu ahal izango dituzte dagozkien espezialitateko titulartasuna egiaztatzen dutenek eta 1364/2010 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren arabera, horietarako gaituak izan direnak aipatu Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudiaren arabera, bosgarren ataleko lehen paragrafoan adierazitako mugapenik gabe, hau da, DBHko lehen bi kurtsoetako postuetara behin betiko atxikita egon beharrik gabe.

Laugarrena.– Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak.

Kidego horietako funtzionarioek honako lanpostu hauek eskatu ahal izango dituzte:

1.– Titularrak diren espezialitateei dagozkien lanpostuak, Agindu honen II. eranskinean azaltzen diren ikastetxeetan eta IV-4 eranskinean aipatutako espezialitateetarako.

2.– Hizkuntza eta Gizartearen arloko Curriculum Desberdinak Eratzeko irakasle-lanpostuak. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte honako espezialitate hauetako batean titularrak diren irakasleek: Gaztelania eta Literatura, Geografia eta Historia, Frantsesa, Grekoa, Ingelesa, Latina, Euskara eta Euskal Literatura eta Filosofia.

3.– Zientzia eta Teknologiaren arloko Curriculum Desberdinak Eratzeko irakasle-lanpostuak. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte honako espezialitate hauetako batean titularrak diren irakasleek: Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Matematika, Teknologia, Fabrikazio Mekanikoaren Antolakuntza eta Prozesuak, Sistema Elektroteknikoak eta Automatikoak, Sistema Elektronikoak, Ibilgailuak Mantentzeko Antolaketa eta Prozesuak, Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza, Sistema Energetikoen Antolaketa eta Proiektuak, Analisia eta Kimika industriala, Ehungintzako Prozesuak eta Produktuak, Jantzigintza eta Larrugintza, Zurgintzako eta Altzarigintzako Prozesuak eta Produktuak, Nekazaritzako Ekoizpen Prozesuak, Komunikazio Prozesuak eta Komunikabideak eta Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak.

4.– Helduen Hezkuntzako postuak:

a) Komunikazio arloa. Ingelesa. Lanpostu horiek eskuratu ahal izango dituzte Ingelesa espezialitateko titularrak diren irakasleek.

b) Komunikazio arloa. Frantsesa. Lanpostu horiek eskuratu ahal izango dituzte Frantsesa espezialitateko titularrak diren irakasleek.

c) Komunikazio arloa. Gaztelania eta Literatura. Lanpostu horiek eskuratu ahal izango dituzte Gaztelania eta Literatura espezialitateko titularrak diren irakasleek.

d) Komunikazio arloa. Euskara. Lanpostu horiek eskuratu ahal izango dituzte Euskara eta Literatura espezialitateko titularrak diren irakasleek.

e) Gizarte Ezagutzaren arloa. Lanpostu horiek eskuratu ahal izango dituzte Geografia eta Historia espezialitateko titularrak diren irakasleek.

f) Zientzia eta teknologiaren arloa. Lanpostu horiek aukeratu ahal izango dituzte honako espezialitateetako batean titularrak diren irakasleek: Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Matematika, Teknologia, Fabrikazio Mekanikoaren Antolakuntza eta Prozesuak, Sistema Elektroteknikoak eta Automatikoak, Sistema Elektronikoak, Ibilgailuak Mantentzeko Antolaketa eta Prozesuak, Eraikuntza Zibilak eta Etxegintza, Sistema Energetikoen Antolaketa eta Proiektuak, Analisia eta Kimika industriala, Ehungintzako Prozesuak eta Produktuak, Jantzigintza eta Larrugintza, Zurgintzako eta Altzarigintzako Prozesuak eta Produktuak, Nekazaritzako Ekoizpen Prozesuak, Komunikazio Prozesuak eta Komunikabideak eta Arte Grafikoetako Prozesuak eta Produktuak.

5.– Kultura Klasikoko lanpostuak. Lanpostu hauen titularrek Latina eta Grekoaren espezialitateak irakatsi ahal izango dituzte, urriaren 6ko 1635/1995 Errege Dekretuak hamargarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera. Lanpostu horiek behar bezala bereizita agertuko dira ikastetxeko langileen zerrendan eta, era berean aipatutako bi espezialitateetako batean titularrak diren Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta katedradunek eskatu ahal izango dituzte. Lanpostuak eskuratzen dituen irakasleak, Latinaren zein Grekoaren espezialitateari atxikitako irakasgaiak eman beharko ditu derrigorrean.

6.– Hizkuntza indartzeko lanpostuak. Honako espezialitateetako batean titularrak diren irakasleek aukeratu ahal izango dituzte lanpostu horiek: Gaztelania eta Literatura, Geografia eta Historia, Frantsesa, Grekoa, Ingelesa, Latina, Euskara eta Euskal Literatura, Filosofia eta Alemana.

7.– Ingelesez irakasteko lanpostua (elebiduna). Ingelesez irakasteko lanpostuak aukeratzeko IV-4 eranskinean jasotako espezialitateren bateko irakasle titularra izan behar da eta Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatekoa ez den hezkuntzan atzerriko hizkuntzan eskolak emateko beharreko gaitasun linguistikoak zehazten dituen maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuko 2. artikuluak jasotzen duen ondoko titulu, gaitze edo ziurtagiriren bat eduki behar da:

– Filologiako, Filosofia eta Letretako (Filologia atala) edo Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentzia, eskatutako hizkuntzan; edo antzeko gradua.

– Itzulpengintza eta Interpretazioko diplomatura, eskatutako hizkuntzan.

– Eskatutako hizkuntzan atzerriko hizkuntzako gaikuntza edo espezialitatea duen maisu-maistra, Lehen Hezkuntzarako.

– Eskatutako atzerriko hizkuntzan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo hori baino maila handiagoa duela egiaztatzea, Dekretu honen eranskinean jasotako titulu edo ziurtagiriren baten bidez.

Ingelesezko irakaskuntzan lanpostuak eskatzeko interesa dutenek, eskaera orriko ELEBITASUNA atalean, 2. INGLESA aukera hautatu beharko dute, hamalaugarren oinarrian adierazten den bezala.

Bosgarrena.– Lanbide Heziketako irakasle teknikoen Kidegoko funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak.

Kidego horretako funtzionarioek honako plaza hauek eskatu ahal izango dituzte:

1.– Titular diren espezialitateei dagozkien lanpostuak, Agindu honen II eranskinean azaltzen diren ikastetxeetan eta IV-6 eranskinean aipatutako espezialitateetarako.

2.– Zereginen Ikaskuntzarako Gelei dagozkien lanpostuak, 250 kodea. Edozein delarik ere bakoitzaren espezialitatea, lanpostu hauek eska daitezke.

Seigarrena.– Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen Kidegoetako funtzionarioentzako lanpostuak eta parte-hartze baldintzak.

1.– Hizkuntza-Eskola Ofizialetako katedradun eta irakasleen Kidegoko funtzionarioek titular diren espezialitateetako lanpostuak eska ditzakete II. eranskinean agertzen diren Zentroen artean, eta IV-7 eranskinean agertzen diren espezialitateetarako.

2.– Musika eta Arte Eszenikoen katedradun eta irakasleen Kidegoko funtzionarioek titular diren espezialitateetako lanpostuak eska ditzakete II. eranskinean agertzen diren Zentroen artean, eta IV-8 eranskinean agertzen diren espezialitateetarako.

3.– Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen Kidegoko funtzionarioek, titular diren espezialitateetako lanpostuak eska ditzakete II. eranskinean agertzen diren Zentroen artean, eta IV-9 eranskinean agertzen diren espezialitateetarako.

Zazpigarrena.– Borondatezko parte hartzea.

1.– Deialdi honetan eskaintzen diren lanpostuetan borondatez parte hartu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden eta jarraian adierazten diren egoeretako batean dauden langile funtzionarioek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako ikastetxeetan behin betiko destinoarekin jarduneko zerbitzuan ari diren funtzionarioek, baldin eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaiera arte gutxienez urte bi pasatu badira.

Horretarako, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako langile funtzionarioei, kontuan hartuko zaie aurretik dagokien irakasle-kidegoko karrerako funtzionario gisa lanpostu berean jardun duten denbora.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako ikastetxeetan aitortutako zerbitzu berezietako egoeran dauden funtzionarioek, baldin eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaiera arte gutxienez urte bi pasatu badira.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikita dauden ikastetxeetan aitortutako borondatezko eszedentzia egoeran, horren mota desberdinetan, dauden funtzionarioek.

Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 89.1 artikuluko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako moduan, norbere interesagatik edo familia batzeagatik borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek, parte hartu ahal izateko, ezinbesteko izango dute eszedentziara igaro zirenetik aurtengo ikasturtea amaitu arte bi urte igaro izana.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako ikastetxeetan aitortutako etendura egoeran aurkitzen diren funtzionarioek, betiere, aurtengo ikasturtea amaitzen denean, etendurako diziplina zigorraren iraunaldia bukatu bada eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik gutxienez urte bi pasatu badira.

e) Beste Herri Administrazio batzuetan zerbitzua eskaintzen ari diren funtzionarioek, baldin eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaiera arte gutxienez urte bi pasatu badira.

2.– Beste hezkuntza administrazio batzuen menpe dauden irakasle funtzionarioak:

Deialdi honi dagozkion plazak eskatu ahalko dituzte beste hezkuntza administrazio batzuen menpe dauden irakasle funtzionarioek, Agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Funtzionario horiek, beren lehen behin betiko destinoa lortu behar izan dute hautatuak izan zireneko deialdiaren eremuko hezkuntza administrazioaren barruan, deialdi hartan baldintza hori betetzeko eskatzen ez zen kasuetan izan ezik.

Langile horiek eskaera-ereduaren arabera, eta destinoko zentroari dagokion hezkuntza Administrazioak egiten duen deialdian zehazten den organoaren aurrean egin beharko dute parte hartzeko eskera.

Zortzigarrena.– Derrigorrezko parte-hartzea.

1.– Deialdi honetan eskaintzen diren lanpostuetan parte hartzera derrigortuta daude jarraian adierazten diren egoeretako batean dauden langile funtzionarioak:

a) Behin-behineko destinoa izan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden ikastetxeetan 2012-2013 ikasturtean zehar zerbitzuak betetzen dihardutenek.

Langile horiek honako baldintza hauen arabera eskatu behar dituzte postuak: titular diren espezialitateen eta egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera, edota, maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik zegoen araudiko gaikuntzaren arabera.

Aitzitik, oraindik bere behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langile funtzionarioek eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren babespean deitutako sarrerarako hautapen-prozedurak gainditu dituztenek, hautatu zuten espezialitatearen lanpostua dagoen tokian izango dute beraien behin betiko lehen postua. Horretarako, espezialitate horri dagozkion lanpostuak eskatu beharko dituzte, Latineko eta Grekoko espezialitatekoak diren langile funtzionarioen kasuan izan ezik. Horiek Latineko eta Grekoko espezialitatekoak ez ezik, Kultura Klasikoko lanpostuak ere eskatu eta lortu ahalko dituzte.

Lehiaketa honetan parte hartuko ez balute, edo parte hartuta ere, hutsik dauden behar adina plaza eskatuko ez balituzte, behin betiko destinoa eman ahalko zaie ofizioz titular diren espezialitateen eta egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera bete ditzaketen postuetan edo, maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik zegoen araudiko gaikuntzaren arabera, oraindik beraien behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langile funtzionarioen kasuan izan ezik eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren babespean deitutako sarrerarako hautapen-prozedurak gainditu dituztenen kasuan izan ezik, horientzat hautatu zuten espezialitatearen araberako lanpostua soilik eman ahal izango baita, ofizioz.

Lehiaketa honetan behin betiko destinorik lortu ez badute, behin-behineko destinoko egoeran geratuko dira 2012-2013 ikasturtean zerbitzuak bete dituzten Lurralde Historikoan.

Lehen behin betiko destinoa oraindik lortu ez dutenek, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko lanpostuen artean soilik hautatu ahal izango dute.

b) Eszedentziatik edo funtzioen etenaldi egoeraren ondorioz behin betiko destinoa galdu eta jarduneko zerbitzura itzuli diren funtzionarioak, baldin eta itzuleraren ondorioz, deialdi hau

argitaratzen den eguna baino lehenago, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeren batean behin-behineko destinoa lortu badute.

Lehiaketa honetan parte hartuko ez balu, edo parte hartuta ere, hutsik dauden behar adina plaza eskatuko ez balitu, behin betiko destinoa esleitu ahal izango zaio, ofizioz, titular diren espezialitateen eta egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera bete ditzakeen postuetan edota, maisu-maiestren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik zegoen araudian lortutako gaikuntzaren arabera.

c) Nahitaezko eszedentzian, edo funtzioen etenaldi irmoan eta destinoko lanpostua galduta dauden funtzionarioek, zigorra bete eta gero behin-behinean itzultzerik lortu ez badute eta egoera hori Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxeren batean aitortu bazaie.

Aurreko paragrafoan aipatutako funtzionarioek lehiaketa honetan parte hartzen ez badute edo, parte hartu arren, behar den beste lanpostu eskatzen ez badute eta, hala, behin betiko destinorik lortzen ez badute, borondatezko eszedentzia egoeran gelditu dira, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 89 artikuluko 1.a) atalean aurreikusten den moduan.

d) Atzerriko lanpostuetara atxikita egon ondoren, 2012-2013 ikasturtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa eremura itzuli behar duten funtzionarioek edo, aurreko ikasturteetan itzulitakoak izanik, oraindik behin betiko destinorik lortu ez dutenek.

Lehiaketa honetan parte hartuko ez balute, edo parte hartuta ere, hutsik dauden behar adina plaza eskatuko ez balituzte, behin betiko destinoa eman ahalko zaie ofizioz titular diren espezialitateen eta egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera bete ditzakeen postuetan, eta maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik zegoen araudian lortutako gaikuntzaren arabera, oraindik haien behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langile funtzionarioen kasuan izan ezik eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren babespean deitutako sarrerarako hautapen-prozedurak gainditu dituztenen kasuan izan ezik, horiei hautatu zuten espezialitatearen araberako lanpostua soilik eman ahal izango baitzaie ofizioz.

e) Epai edo errekurtso bati emandako ebazpena betetzeagatik edo behin betiko izaeraz betetzen zuten lanpostua espresuki ezabatu zaielako, behin betiko destinoa galdu duten funtzionarioek.

Lehiaketa honetan parte hartuko ez balute, edo parte hartuta ere, hutsik dauden behar adina plaza eskatuko ez balituzte, behin betiko destinoa eman ahalko zaie ofizioz titular diren espezialitateen eta egiaztatzen duten hizkuntza-eskakizunaren arabera bete ditzaketen postuetan, eta maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, urriaren 29ko 1364/2010 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik zegoen araudian lortutako gaikuntzaren arabera.

2.– Era berean, lehiaketa honetan parte hartu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle kidegoetan sartzeko hautaketa prozesuetan aukeratua izanik, ikasturte honetan praktikak egiten ari dena, honako kasu hau salbu:

Lehiaketan parte hartzeko derrigortasunetik salbuetsita daude maisu-maistren kidegotik Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegora Gorako talde bateko kidegoetara sartzeko prozeduraren bidez iritsi direnak eta espezialitate berean behin betiko zerbitzuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen ari direnak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren mendeko ikastetxeetan. Aurreko atalean aipatzen den aukera idazki baten bidez derrigorrean jakinarazi beharko zaio Langileriaren Kudeaketarako zuzendariari, eskaerak eta agiriak aurkezteko epean.

Irakasle horiek, Hezkuntzako Lege Organikoaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraiki, betetzen ari ziren destinoetan berretsiak izango dira, hautaproben espedientea onartu ondoren, bertan hautatutako izangaiak karrerako funtzionario izendatzen dituztenean.

Praktikan dauden funtzionario langileek beren behin betiko lehen destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden plaza edo lanpostuetan eta aukeratuak izan diren espezialitatean soilik lor dezakete.

Destinoak esleituko dira aukeratuak izan diren deialdiaren urtea aintzat hartuta (zaharrenak lehenetsiz berrienen aurrean) eta, horren barnean, honako hau izango da kontuan:

1) Talde bereko Kidegoetara sartzea.

2) Goi-mailako Kidegoetara sartzea.

3) Txanda librea eta ahalmen urrituentzako txanda.

Txanda bakoitzaren barnean, kontuan izango da praktiketako funtzionarioaren izendapenean zein ordenatan ageri den.

Dagokien destinoa, praktikaldia gainditu eta karrerako funtzionario izendatu izanak baldintzatuko du.

Eskaririk aurkezten ez duena, eta aurkeztuta ere, behar beste plaza eskatzen ez dituena, aukeratua izan den espezialitateari dagozkion behin betiko lanpostuetara destinatu ahal izango dute ofizioz.

Lehiaketa honetan behin betiko destinorik lortzen ez bada, behin-behineko destinoko egoeran geratuko da praktiketako funtzionario gisa 2012-2013 ikasturtean zerbitzuak bete dituen Lurralde Historikoan.

3.– Oinarri-arau honen 1. paragrafoan aipatzen diren parte-hartzaileek, c) eta e) kasuetan izan ezik, eskatutako lanpostuetako bakarra ere lortzen ez duten kasuetan eta, beraz, behin betiko destinoa ofizioz esleituko zaien kasuetan, eskabidearen «Derrigorrean parte hartzen bada soilik bete beharrekoa» izeneko idazpuruan, gogokoenen hurrenkeran, lanpostu-moten (espezialitateak) eta hizkuntzen (hizkuntza-eskakizunak) kodeak adieraziko dituzte, deialdi honetan ezarritakoaren arabera, ikastetxea, lanpostu-mota (espezialitatea) eta hizkuntza (hizkuntza-eskakizuna) kontutan hartzeko ofizioz lanpostua esleitzen zaienean.

Era berean, oinarri honen 1. atalean aipatzen diren parte-hartzaileak (c) eta e) kasuak izan ezik) eta 2. atalean aipatzen direnak, aurreko paragrafoan adierazitako idazpuruan hautatu ahal izango dituzte ofiziozko esleipenean kontuan izan beharreko lurralde historikoa edo, lurralde bat baino gehiago adieraztekotan, haien hurrenkera.

Lurralde historikoen kodeei erreferentzia egiten dien atala betetzen ez bada, 2012-2013 ikasturtean behin-behinean zerbitzuak bete dituzten lurralde historikoan soilik esleitu ahal izango zaizkie lanpostuak ofizioz.

Aipatutako idazpuruan 2012-2013 ikasturtean behin-behinean zerbitzua ematen ari den edo praktikaldian dagoen lurraldez bestelako lurralde historiko bakarra aukeratzen den kasuan, adierazitako lurralde historiko horretako plazak soilik esleitu ahal izango zaizkie ofizioz.

Nahitaezko esleipena II. eranskinean argitaratutako zentroen hurrenkera jarraituz egingo da.

Xedatutakoa salbuespena da, Musika eta Arte Eszenikoko katedradun eta irakasleen Kidegoko funtzionarioei dagokienez, izan ere, ofizioz eta behin betiko esleitu ahal izango zaizkie honako lanpostuak: dituzten espezialitate eta hizkuntz eskakizunen arabera euren aukerakoen artekoak direnak; betiere II-5 eranskinean argitaratutako ikastetxe guztien ordenari jarraituaz.

Bederatzigarrena.– Derrigorrez esleipenetik kanpo geratzen diren plaza hutsak.

Inoiz ere ez dira derrigorrez esleituko:

1.– Maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioentzat, honako hauei dagozkien lanpostuak:

Helduen Hezkuntza.

Zereginen Ikaskuntzako ikasgelak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetako lanpostuak.

Lanpostu ibiltariak.

2.– Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta katedradunen Kidegorako eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen Kidegoetako langile funtzionarioentzat, honako hauei dagozkien lanpostuak:

Helduen Hezkuntza.

Zereginen Ikaskuntzako ikasgelak.

Curriculum aniztasuna.

Hizkuntza indartzea.

Ingelesezko irakaskuntza (elebiduna).

Hamargarrena.– Hizkuntza eskakizuna.

Derrigortasun-eguna beteta daukaten hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak eskatzeko, ezinbestekoa izango da dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea, edo bestela, martxoaren 10eko 42/1998 eta urriaren 6ko 263/1998 Dekretuek aldatutako martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak (apirilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria) martxoaren 10eko 42/1998 eta urriaren 6ko 263/1998 Dekretuek aldatua, bai eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzeari buruzko indarrean dagoen gainerako araudia ere, aipatutako hizkuntza-egiaztapenen jabe izatea, bertan finkatutako baldintza eta betebeharrekin.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzen eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzeko salbuespenak ezartzen dituen apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko 2. eta 3. artikuluetan aurreikusi salbuespenak aplikatuko dira.

Hamaikagarrena.– Lehentasunezko eskubidea.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten lehiatzaileak lehentasunezko eskubideaz baliatu ahalko dira, eta eskabideetan halaxe agertuko dute hori.

1.– Ikastetxe baterako lehentasun-eskubidea.

Behin betiko destinoa duten edo izan duten ikastetxe berean lanpostu berri bat lortzeko lehentasunezko eskubidea izango dute, adierazitako kasuren batean dauden eta ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek, zerrendatzen diren lehentasun-ordenan:

a) Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua ezabatzen denean, egoera horrek dirauen bitartean, ikastetxe berean edozein espezialitatetan behin betiko beste destino bat

lortzeko dagoen beste edozein hautagairekiko lehentasunezko eskubidea izango dute, beti ere lanpostua betetzeko ezinbesteko diren baldintzak betetzen badituzte.

b) Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua aldatzen denean, egoera horrek dirauen bitartean, ikastetxe berean edozein espezialitatetan behin betiko beste destino bat lortzeko dagoen beste edozein hautagairekiko lehentasunezko eskubidea izango dute, beti ere lanpostua betetzeko ezinbesteko diren baldintzak betetzen badituzte.

c) Behar adina irakastordu ez izateagatik beren ikastetxetik lekualdatu dituztenen kasuan, egoera horrek dirauen bitartean, behin betiko destinoa duten ikastetxean egon daitezkeen lanpostu hutsetarako beste edozein hautagairekiko lehentasunezko eskubidea izango dute, beti ere lanpostua betetzeko ezinbesteko diren baldintzak betetzen badituzte.

d) Espezialitate berriak eskuratzen dituztenean, ekainaren 4ko 850/1993, otsailaren 27ko 334/2004 eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuetan ezarritakoaren arabera, behin betiko destinoa duten ikastetxean, eskuratutako espezialitate berrian, lanpostu bat lortzeko beste edozein hautagairekiko lehentasunezko eskubidea izango dute. Eskubide hori Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen kidegoetako eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko irakasleek izan dezakete.

Lanpostu berria lortu ostean, eskubide hori beste espezialitate berri bat eskuratzerakoan soilik erabili ahal izango da.

Aurreko atal bakoitzean adierazitako egoeran karrerako bi funtzionario edo gehiago daudenean, lanpostua esleituko zaio merezimenduen baremoa aplikatzean puntuazio altuena lortzen duenari. Puntuazioetan berdinketak gertatuko balira, berdinketa horiek hausteko lehen irizpide gisa ikastetxean karrerako funtzionario gisa jarduneko egoerako benetako zerbitzuetan denbora gehien daramana lehenetsiko da eta, beharrezkoa balitz, merezimenduen baremoan (I. eranskina) aurreikusitako gainerako irizpideak erabiliko dira bertan agertzen diren ordenan.

Ikastetxe baterako lehentasun-eskubide hori erabili nahi duen irakasleak parte hartzeko eskabidean («Ikastetxe baterako lehentasun-eskubidea baliatuz gero bete beharrekoa» idazpuruan), eskubide hori erabiltzeko hautatu den ikastetxearen kodea, lehenik, eta lehentasun-eskubideaz baliatzeko arrazoia, gero, adierazi beharko ditu. Eskubide hori baliatzeko lanpostu-mota (espezialitatea) eta hizkuntza (hizkuntza-eskakizuna) adierazten duen lehentasun-ordena adierazi beharko ditu. Gainera, maisu-maistren kidegoko langile funtzionarioek ibiltaritza-atala aukeratuko dute ibiltari izaera duten lanpostuak nahi badituzte.

Halaber, jarraian, «Eskatzen diren lanpostuak» atalean, beste ikastetxe batzuetako lanpostuei dagozkien beste eskaera batzuk gehitu ahal izango ditu, titular den espezialitateen eta hizkuntzaren/hizkuntza-eskakizunaren arabera eska ditzakeenak edo, maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, 1364/2010 Errege Dekretua indarrean jarri aurreko araudiaren arabera gaituta izan zirenak, horietan lehentasun-eskubiderik gabe lehiatu nahi badute.

2.– Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea.

Herri edo barruti bateko ikastetxeetan behin betiko destinoa lortzeko lehentasun-eskubidea izango dute, jarraian adierazten diren egoeraren batean dauden eta ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek, zerrendatzen diren lehentasun ordenan:

a) Ikastetxe batean behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua ezabatu edo aldatzen denean, beste behin betiko destino bat lortu arte, lehentasun-eskubidea izango dute herri bereko

beste ikastetxe bateko edo, hala badagokio, lanpostua ezabatu den ikastetxea dagoen barrutiko beste ikastetxe bateko beste lanpostu bat lortzeko.

b) Behar adina irakastordu ez izateagatik beren ikastetxetik lekualdatu dituztenen kasuan, ezabatutako lanpostuetako titularren baldintza beretan, behin betiko destinoa duten herrian edo, hala badagokio, barrutian dauden lanpostu hutsekiko lehentasun-eskubideaz baliatu ahal izango dute.

c) Behin betikoz betetzen zuten irakasle-lanpostua galduta Herri Administrazioan beste lanpostu bat betetzera pasa direnak, beti ere azken lanpostua eten badute.

d) Behin betikoz betetzen zuten plaza edo lanpostua galdu dutenak, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 89.4 artikuluan aurreikusitako familiarteko edo seme-alabak zaintzeko borondatezko eszedentziaren egoera aitortu ostean aplikatu beharreko araudiak zehaztutako lanpostu-erreserbaren denbora-tartea amaitu delako eta zerbitzu aktibora itzuli nahi badute edo behin-behinean itzuli badira.

e) Atzerriko lanpostuetara atxikita egon ondoren, 2012-2013 ikasturtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa eremura itzuli behar duten funtzionarioek edo, aurreko ikasturteetan itzulitakoak izanik, oraindik behin betiko destinorik lortu ez dutenek (Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioko administrazioa atzerrian arautzen duen urriaren 31ko 31/2002 Errege Dekretua).

f) Azken behin betiko destinoa galtzeagatik, epaiaren betearazpenean edo administrazio-errekurtsoaren ebazpenean.

g) Ezintasun iraunkorraren ondorioz erretiro-egoera aitortu ostean, zerbitzu aktiborako errehabilitatuak izan direnak.

Aurreko atal bakoitzean adierazitako egoeran karrerako bi funtzionario edo gehiago daudenean, lanpostua merezimenduen baremoa aplikatzean puntuazio altuena lortzen duenari esleituko zaio. Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, azpi-ataletan lortutako puntuak aintzat hartuko dira, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraituz. Bi kasuotan, arlo bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da baremoan atal bakoitzerako finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa izan, ezta, azpiatalen kasuan, azpiatalak sartuta dauden arloak daukan puntuaziorik altuena baino handiagoa ere. Irizpide horiek aplikatzean azpiatal bat edo gehiago sartuta dagoen atalaren puntuaziorik altuenera iristen bada, ez dira kontuan izango gainerako azpiataletan izandako puntuazioak. Beharrezkoa balitz, berdinketa apurtzeko irizpide gisa erabiliko dira kidegoan sartzeko erabili zen hautazko prozeduraren urtea eta aukeratua izateko lortu zen puntuazioa.

Aurreko 2. atalean adierazitako kasuren batean egonda, herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea erabili nahi dutenek, herrian ala barrutian erabiltzearen artean aukeratu beharko dute.

Eskubidea herriaren arabera erabiltzen bada, lehentasunaren arabera adieraziko dira zentroak; eskubidea barrutiaren arabera erabiltzen bada, lehentasunaren arabera herriak, eta nahi izanez gero, zentroak adierazi ahal izango dira.

Eskubide hori baliatu nahi bada nahi dena lortzeko, horretarako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egiten dituen deialdi guztietan parte hartu beharko da. Parte hartu ezean, lehentasunezko eskubidetua indargabetu egingo zaio.

Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubideren batez baliatzen diren irakasleek, parte hartzeko eskabidean honakoa adierazi beharko dute:

– «Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea baliatuz gero bete beharrekoa» idazpuruan, eskubidea erabili nahi den herri edo barrutiaren kodea adierazi behar da, bai eta lehentasun-eskubidearekin parte hartzeko arrazoia zein den ere.

– Jarraian, eskubide horretaz baliatzeko lanpostu-mota (espezialitatea) eta hizkuntza (hizkuntza-eskakizuna) adierazten duen lehentasun-ordena adierazi beharko du. Gainera, maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioek ibiltaritza-atala aukeratuko dute ibiltari izaera duten lanpostuak nahi badituzte. Lehentasun hori kontuan hartuko da herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna/derrigortasun-data erreserbatzeko. Lehentasun-eskubideaz baliatuta herri, espezialitate eta hizkuntza-eskakizunaren erreserba lortu ostean, ikastetxe jakin bateko destinoa, lekualdatze-lehiaketan parte hartzen duten gainerakoekin batera merezimenduen baremoan lortutako puntuazioaren arabera lortuko dute.

Beraz, eskubide hau erabiliz hautatzen den herrian eskaera egiten duten lehiakide guztientzako nahiko plaza huts ez baleude, bakoitzaren puntuazioa alde batera utzita, lehentasunezko eskubidea duen parte-hartzaileari plaza huts horietako bat bermatuko zaio: Hortaz, partaide horrek lehentasunezko destino bat lortu ahal izango du puntu gehiago dituen beste partaide baten aurretik. Aurrean azaldutakoaren kalterik gabe, tokia eta plaza ziurtatuta (espezialitatea/lanpostua eta hizkuntza-eskakizuna/hizkuntza), zentro zehatz bat esleitzeko eskubide hori duen parte-hartzailea kidego, espezialitate eta hizkuntza-eskakizun berberak betetzen dituzten gainerako partaideekin batera lehiatuko da, merezimenduen baremoan lortutako puntuak kontuan hartuta.

– Ikastetxe jakin bat lortzeko, lehentasun-ordenaren arabera, «Eskatzen diren lanpostuak» idazpuruan, eskubidea egikaritzea dagokion herriko ikastetxe guztiak adierazi behar dira eta, barrutiko lehentasun-eskubidea izanez gero, aukeraz eskatutako herrietako ikastetxe guztiak; herriko kodea bakarrik adieraziz gero, lanpostuak hutsik dituzten bertako edozein ikastetxetako destinoa emango zaio; ikastetxe jakin batzuk adieraziz gero, horiek herrien araberako bloke homogeneotan multzokatu behar dira. Eskubidea izanda herriko ikastetxe guztiak eskatzen ez badira, edo, gune baterako lehentasun-eskubidea izanda, aukeraz eskatu diren herri edo herrietako ikastetxe guztiak eskatzen ez badira, horietako batean lanposturen bat hutsik badago, Administrazioak, libreki, aipatu herriko gainerako edozein ikastetxeko lanpostu batean eman ahal izango dio destinoa, dagozkion eranskinetan kidego bakoitzari lotuta agertzen diren ordenan.

Lehen adierazitako egoera guztietan, lehentasun-eskubide hori baliatzen duten parte-hartzaile guztiek «HLE» –lehentasun-eskubidea– siglak adierazi beharko dituzte eskatutako ikastetxeko «lanpostu-mota» izeneko kodeari dagozkion laukitxoetan. Hala eginez gero, «Herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea baliatuz gero bete beharrekoa» idazpuruan adierazitako parte hartzeko eskatu diren espezialitate guztiak hartuko dira kontuan.

Gainera, lehentasun-eskubidetik kanpo lehiatu nahi badute, beren espezialitate eta hizkuntza-eskakizunen arabera eta deialdi honetako hirugarren, laugarren eta bosgarren oinarri-arauetan xedatutako baldintzak beteta, lehentasun-eskubiderik gabe, lortu nahi dituzten beste lanpostu batzuetako eskaerak gehitu ditzakete jarraian.

Hamabigarrena.– Ikastetxerako lehentasun-eskubideak destinoa lortzeko lehentasuna dakar herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea erabiltzen dutenen aurrean.

Hamahirugarrena.– Konkurrentzia-eskubidea.

1.– Konkurrentzia-eskubide gisa hartzen da, behin betiko destinoa duten irakaskuntza-kidego bereko karrerako hainbat funtzionariok lehiaketa batean parte hartzeko baldintza gisa Lurralde Historiko jakin bateko ikastetxe batean edo batzuetan destinoa lortzea jartzen dutenean.

2.– Eskubide horrek ondoko berezitasunak izango ditu:

a) Parte-hartzaileek, beren eskabideetan, Lurralde Historiko bakarreko ikastetxeak adieraziko dituzte, berdina multzo-kide talde bakoitzerako.

b) Talde bakoitzean, gehienez ere, lau pertsonek hartuko dute parte, eta derrigorrezkoa izango da eskatzaile bakoitzak eskabidea bereizita aurkeztea.

c) Destinoaren esleipena betetzeko diren lanpostu hutsen artean egingo da eta Agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen den merezimenduen baremoaren aplikazioak zehaztuta egongo da.

d) Parte hartzeko modu horren helburua zera da: talde bereko parte-hartzaileek Lurralde Historiko bereko ikastetxe batean edo batzuetan destinoa aldi berean lortzea. Horietako baten batek ezin izango balu lanpostu bat lortu, bide horren bidez taldeak eginiko eskabideak ez dira onartuko.

e) Ezingo dute eskubide hori erabili behin-behineko destinoa dutenek, lehiaketan parte hartzea derrigorrezkoa baita.

Hamalaugarrena.– Eskabideak.

1.– Hamalaugarren oinarri honek aipatutako eskaera aurkeztu beharko da honako kasu hauetan:

a) Zortzigarren oinarrian aipatutako derrigorrezko parte-hartzea.

b) Zazpigarren oinarriak erreferentzia egiten dion borondatezko parte-hartzea, beti ere Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko zentroek adierazitako egoera duten funtzionarioak badira.

2.– Beste hezkuntza administrazio bateko irakasle funtzionarioen borondatezko parte-hartzea eskaera ereduaren arabera eta destinoko zentroari dagokion hezkuntza administrazioak egingo duen deialdian zehazten den organoaren aurrean egingo da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden irakasle funtzionarioek beste hezkuntza administrazio batzuek egindako deialdietako plazak eskatu ahal izango dituzte deialdi horiek ezartzen dituzten irizpideei jarraiki, beti ere haien lehengo behin betiko destinoa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren kudeaketa-eremuaren baitan lortu badute, sartu zireneko deialdiak baldintza hori betetzea eskatzen ez zien kasuetan izan ezik.

4.– Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko, irakaslegunea inguruneko eskabide elektronikoa bete behar da. Eskabide hori http://www.irakasle.net web-orrian egin behar da.

Parte-hartzaile bakoitzak kidego bakoitzeko eskabide bakarraren izapideak ON-LINE egingo ditu.

5.– Irakaslegunean sartzeko, parte-hartzaileek erabiltzailearen izena eta irakasleen posta elektronikoko pasahitza sartu behar dituzte. Posta elektroniko hori ez dutenek NAN zenbakia eta irakaslegunean sartzeko pasahitza sartu beharko dituzte. Sartzeko pasahitza ahaztuz gero, aipatu

helbidean hori berreskuratzeko bidea aurki daiteke, «Pasahitza eskuratu (edo berreskuratu)» atalean.

Pasahitza sartu ostean, Lekualdatze-lehiaketak - Onarpen-eskabidea ataletan sartu.

6.– Eskabidea osorik bete ostean, ontzat emanez itxiko da, behar bezala baliozkotua eta erregistratua gera dadin.

Eskabidea ontzat emanez ixten ez bada, eskabide hori egin gabe geratuko dela ulertuko da, pertsona hori parte hartzera behartuta egon eta behar bezala itxitako beste eskabiderik aurkeztu ez duen kasuan izan ezik. Kasu horretan, egindako baina itxi gabeko eskabidea eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan itxiko da automatikoki, eta ordura arte gordetakoa hartuko da kontuan esleipena egiteko.

7.– Lanpostuen eskaerak «Eskatzen diren lanpostuak» idazpuruan adieraziko dira; ikastetxe edota herri jakin baterako egin daitezke, eta bi modalitateak bateragarriak dira. Azken kasu horretan, lanpostu bat hutsik duen herriko lehen ikastetxea edo oinarri-arauen II. eranskinean adierazitako orden berean azaltzen dena esleituko da.

Lehiakideak lehentasunaren arabera eskatuko ditu lanpostuak, bereganatu nahi dituen herrien edo zentroen kodeak eta lanpostu motarenak (espezialitatea) nahiz hizkuntzarenak (hizkuntza-eskakizuna) ezarriz, Agindu honen eranskinetan agertzen diren moduan, eta, beharrezko izatekotan, deialdia egiten duten beste hezkuntza administrazio batzuen leku-aldatze lehiaketen deialdien eranskinetan ageri diren bezala.

8.– Lanpostu elebidunak eskatuz gero, eskabidearen ELEBITASUNA atalean, 2. aukera INGELESA, adierazi beharko da. Beste hezkuntza administrazio batzuetako lanpostu elebidunak (ingelesez, frantsesez edo alemanez) eskatzekotan, dagokion elebitasun-kodea gehitu beharko zaio, lanpostua eskaintzen duen hezkuntza administrazioaren oinarrien araberakoa. Gainera, maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioek ibiltaritza-atala aukeratuko dute ibiltari izaera duten lanpostuak nahi badituzte.

9.– Lanpostu bakoitzaren eskaera zentroaren edota herriaren, espezialitatearen, hizkuntzaren (hizkuntza-eskakizuna), elebitasunaren eta ibiltaritzaren gehiketa/konbinazioa dela kontuan izanik, lanpostuen eskaerak ondoren adierazitakoa kontuan izanik egin beharko dira:

Zentro edo herri berean lanpostua espezialitate batengatik edo gehiagorengatik eskatzen bada, beharrezkoa da zentroa edo herria errepikatzea eskatzen den espezialitate bakoitzeko, espezialitate bakoitzeko lanpostuaren kodifikazioa ezberdina baita.

Zentro edo herri eta espezialitate bereko lanpostua eskatzen bada hizkuntza-eskakizunean aukera ezberdinak erabiliz, zentroa edo herria eta espezialitatea behar adina aldiz errepikatu beharko dira, jarraian hizkuntza-eskakizunari dagokion aukera diferente bakoitza adieraziz (V. eranskina).

Zentro edo herri berean lanpostu jakin bat eskatzen bada elebidun modalitatean nahiz modalitate ez elebidunean, zentroa edo herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna errepikatu beharko dira eta ELEBITASUNA atalean adierazi, lehen kasuan «2. INGELESA» aukeratuz eta bigarren kasuan «0. ELEBITASUNIK EZ» aukeratuz. Maisu-maistren Kidegoari dagokionez ere modu berean jokatu behar da baldin eta zentro batean ibiltaritza eskatzen duen edo ibiltaritza eskatzen ez duen lanpostu bat eskatzen bada, lehen kasuan «BAI» adieraziz eta bigarrenean «EZ».

10.– Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako funtzionarioek dagozkien mailetako irakasleen kidegoetako funtzionarioekin batera hartuko dute parte, lanpostu huts berak lortzeko, aipatutako katedradunen kidegokoak izateagatik aplikatu beharreko berariazko merezimenduen kaltetan izan gabe.

11.– Edonola ere, zehazki parte-hartzaileek adierazitako kodeei dagozkien lanpostuak eskatu direla hartuko da kontutan. Eskabideetako kodeak ez badira existitzen, osatu gabeak badira edo parte-hartzaileak eska ditzakeen lanpostuekin bat ez badatoz, baliogabetu egingo dira. Aurreko arrazoiengatik eskaera guztiak baliogabetuko balira, lehiakidea destinoen esleipenetik baztertuko da, deialdi honetan aurreikusten diren ofiziozko destinoen esleipen-egoeren kaltetan izan gabe.

Hamabosgarrena.– Lehiaketan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Parte hartzeko eskabidea aurkezteko unean, lehiatzaileek eskatutako baldintzak eta adierazitako merezimenduak ziurtatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, oinarri hauei erantsitako I. eranskineko baremoan zehazten diren aurreikuspenei jarraituz, praktiketako funtzionarioen kasuan izan ezik, ez baitute merezimenduak ziurtatzeko agiririk aurkeztu behar.

Eskakizun eta merezimenduak egiaztatzen dituen dokumentazioa aplikazio informatikoan (eskaera bete ostean) lortuko den inprimakiarekin batera aurkeztuko da eta emandako dokumentazio guztiaren zerrenda egingo da bertan. Aipatu inprimakia Interneteko www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.irakasle.net helbideetan lor daiteke.

Fotokopia bidez aurkezten den dokumentazioa behar bezala konpultsatua izango da.

2.– Gaztelaniaz edota euskaraz ez den dokumentazio guztia Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batera egindako itzulpen ofizial eta guzti aurkeztu beharko da, zinpeko interpreteak egina edo, bestela, dagokion kontsulatu edo bulego diplomatikoak baliozkotua.

3.– Edonola ere, Administrazioak behar diren azalpen eta agiriak eskatu ahal izango dizkie lehiatzaileei, merezimenduei dagokienez sortutako zalantzak eta erreklamazioak ebazteko.

Aurkeztutako dokumentazioaren egiatasunaren erantzuleak eskatzaileak izango dira. Agiriren bat faltsua bada edo manipulatuta badago, parte-hartzaileak deialdi honetan parte hartzeko eskubidea galduko du, bestelako erantzukizunak alde batera utzi gabe.

4.– Eskabidea betetzeko (eskaera elektronikoa) eta oinarri honen lehen paragrafoan adierazten diren agiriak aurkezteko epean, lehentasun-eskubideaz epai edo administrazio-ebazpen irmoa dela eta baliatzen direnen kasuan, herri edo barruti jakin baterako lehentasun-eskubideaz baliatzeko eskubidea dutela egiaztatzen duen agiriaren kopia gehituko da.

5.– Eranskineko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletako merezimenduei dagokienez, eta administrazio-izapideak gutxitzeko eta sinplifikatzeko helburuarekin, 2010eko azaroaren 16ko Aginduz deitutako (2010eko azaroaren 22ko EHAA) 2010-2011ko lekualdatze lehiaketan edo 2011ko abenduaren 16ko Aginduz deitutako (2012ko urtarrilaren 10eko EHAA) 2011-2012ko lekualdatze lehiaketan parte hartu zutenek, eskabidean honako hauen artean aukeratu ahal izango dute:

- Parte hartu zuten azkeneko lehiaketako puntuak mantentzea.
- Merezimendu berriak gehitzea.

Aukera horiek erabiliko dira I. eranskineko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletan ofizioz konputatzen ez diren merezimenduei dagokienez aurkeztu beharreko dokumentuekin. Horrek esan nahi du ofizioz

konputatzen diren merezimenduak automatikoki eguneratuko direla, erabiltzen den aukera edozein izanda ere.

Aipatutako I. eranskinean ofizioz konputatzen diren merezimenduak (ez da dokumentaziorik aurkeztu behar) eta ofizioz konputatzen ez direnak (dokumentazioa aurkeztu behar da) adierazten dira.

Aukerak:

– Parte hartu zuen azken lehiaketako puntuak mantentzea: Parte hartu zuten azkeneko lehiaketako I. eranskineko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletako puntuak mantentzea erabakitzen dutenek eskaeran «Parte hartu zuen azkeneko lehiaketako puntuaketa mantentzea» aukera adierazi beharko dute. Kasu horretan, ez dute inolako dokumentaziorik aurkeztu behar izango adierazitako ataletako merezimenduei dagokienez. Aitzitik, beste atal edo azpiatal batzuei dagozkien merezimenduak aurkeztu ahal izango dituzte.

– Merezimendu berriak gehitzea: Parte hartu zuten azkeneko lehiaketan (2010-2011 edo 2011-2012) barematutako merezimenduei berriak gehitu nahi bazaizkie, eskaerako 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletan (dagokion atal edo azpiatalean puntuazio gorena lortu ez badute) «Merezimendu Berriak Gehitu» aukeratu beharko da. Kasu horretan, parte hartu duten lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epe-amaieraren ondotik lortutako eta amaitutako merezimenduak aurkeztu beharko dituzte (kasuaren arabera, 2010eko abenduaren 15etik edo 2012ko urtarrilaren 28tik aurrera) lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu arte.

Atal horietako merezimenduak adierazitako daten aurrekoak badira, ez dira barematuko. Aitzitik, beste atal edo azpiatal batzuei dagozkien merezimenduak aurkeztu ahal izango dituzte.

Parte hartu zuten azken lehiaketaren deialdia baino lehenagoko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletako merezimenduak barematu nahi badira, «Baremazio berria» izeneko 15.6 oinarrian adierazten denaren arabera egin beharko da.

6.– Baremazio berria.

Eskabidean «Baremazio berria» aukera noiz adierazi behar den:

– 15.5 oinarrian adierazitako inongo deialditan parte hartu ez dutenean.

– 15.5 oinarrian adierazitako deialdiren batean parte hartu eta I. eranskineko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletako baremazioarekin ados ez daudenean.

– 2012ko irailaren 1ean karrerako funtzionario izendatuta egon eta oraindik destinorik lortu ez dutenak.

– Erkidego honetan destinoa lehen aldiz 2010-2011 ikasturtean lortu zuten beste autonomia erkidego batzuetako funtzionarioak.

– Parte hartu zuten azken lehiaketako deialdia baino lehenagoko 2, 3, 4.3, 5 eta 6 ataletako merezimenduak barematzea nahi badute. 2010-2011 lehiaketako deialdiari dagokionez, 2010eko abenduaren 15a baino lehenagoko merezimenduak izango lirateke eta, 2011-2012 lehiaketaren deialdiari dagokionez, 2012ko urtarrilaren 28a baino lehenagokoak.

Kasu horietan, atal guztiei dagokien ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, baloratuak izan daitezen.

Hamaseigarrena.– Eskatutako baldintzak eta adierazitako merezimenduak ziurtatzeko agiriak aurkezteko tokia.

1.– Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan.

2.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan adierazitako edozein lekutan. Posta-zerbitzuko bulegoren batean aurkeztu nahi bada eskabidea, kartazal irekian egingo da, zerbitzu horretako funtzionarioak eguna eta zigilua jar ditzan eskabidean, kartazala egiaztatu aurretik.

Hamazazpigarrena.– Eskabideak egiteko eta agiriak aurkezteko epea.

Eskaerak egin eta agiriak aurkezteko epea 2012ko azaroaren 6tik 22ra bitartekoa izango da, biak barne.

Adierazitako epe hori amaitu eta gero ez da egindako eskaeretan aldaketarik onartuko, ezta aurkeztutako merezimenduei buruzko dokumentaziorik ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datan parte hartzeko baldintza guztiak, Agindu honen zazpigarren oinarrian ezarritakoaren kalterik gabe, eta alegatutako merezimenduak bete behar dira.

Hemezortzigarrena.– Merezimenduen ebaluaketa.

1.– Adierazitako eta, hala badagokio, lehiatzaileek behar bezala egiaztatutako merezimenduak ebaluatzeko, I. eranskineko puntuazio-baremoko 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 idatz-zatiei dagokienez, hala jokatuko da:

a) Maisu-maistren Kidegoko langile funtzionarioen kasuan, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzean Batzorde bat edo batzuk osatuko dira. Batzorde hori dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzak esleitutako honako kide hauek osatuko dute:

Hezkuntzako Ikuskaritza Saileko funtzionario bat, batzordeburu lana egingo duena.

Lurralde-ordezkaritzetako karrerako lau funtzionario irakasle, batzordekide-lana egingo dutenak.

Idazkari gisa mahaikide gazteena izendatuko da, Batzordeak beste irizpiderik jartzen ez badu.

b) Deitutako gainerako irakasle-kidegoetako langile funtzionarioen kasuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileria Kudeatzeko zuzendariak izendatuko ditu beharrezko Batzorde Barematzaileak, espezialitateen arabera edo antzeko espezialitate-multzoen arabera.

Batzorde Barematzaileak honako kide hauek osatuko dituzte:

Lehendakaria: Batzordea izendatzen den Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko funtzionario bat edo irakasleen Kidegoko funtzionario bat.

Batzordekideak: Batzordea izendatzen deneko lau irakasle funtzionario.

Halaber, mahaikide gazteena idazkari izendatua izango da, Batzordeak beste irizpiderik ezartzen ez badu.

b) ataleko batzorde barematzaile bakoitzeko burua Langileriaren Kudeaketako zuzendariak izendatuko du, eta kideak, aldiz, zozketaz aterako dira.

c) Kidego guztietan, ordezkaritza gehien duten erakunde sindikalek ordezkari bat izendatu ahal izango dute batzorde bakoitzean, begirale-lana egiteko.

d) Batzordeetako kideek, deitutako lanpostuetarako beharrezko diren titulazio-multzo berekoak edo altuagokoak izan behar dute. Batzorde barematzailea izendatzeko irizpide berberei jarraituz, ordezko batzordeburua, kideak eta idazkaria ere izenda daitezke. Batzordeetako kideak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritako arrazoibideen menpe egongo dira, beraiek uko egin nahiz besteen ezespena jasotzeko.

e) Horren kontrako arrazoi sendorik adierazi ezean, gizonek zein emakumeek gutxienez % 40ko ordezkapena izango dute batzordeetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez aldatutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) 2011ko azaroaren 16ko Aginduz (2011ko urtarrilaren 10eko EHAA) deitutako lekualdatze-lehiaketen Balorazio Batzordeetan parte hartu duten langile funtzionarioak, oinarri honetan aurreikusitako batzordeetako kideak zozketaz esleitzeko prozesutik at geratuko dira, lehiaketaren xede den espezialitateren batean dagokion Balorazio Batzordea osatzeko nahikoa irakasle ez dagoenean salbu.

g) Lehiaketaren xede diren espezialitateetakoren batean Batzordea osatzeko nahiko irakasle ez badago, batzordekideak antzeko irakasgaietako irakasleen artean edota gai horretako adituen artean izendatuak izango dira. Era berean, parte-hartzaileen kopurua txikia denean, antzerako espezialitate batzuk biltzen dituen batzorde bat izendatu ahal izango da.

h) Beharrezkotzat jotzen den Batzordeetan, Batzorde Barematzaileak eskatuta, Langileen Kudeaketarako zuzendariak gai horretako aditu bi ekarri ahal izango dizkio Batzordeari.

i) Otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren (26ko EHAA) 6. eta 16. artikuluetan xedatzen diren ondorioetarako, bidaia-gastuei dagozkien kalte-ordainak, zerbitzuarengatiko ordainketengatik eman behar diren kalte-ordainen zenbatekoak gaurkotzen dituen ekainaren 13ko 121/2006 Dekretuaren hirugarren aldaketak (28ko EHAA) xedatzen duenaren arabera ordainduko dira.

j) Batzorde Barematzaileen osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren webgunean argitaratuko da: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

2.– Dagokien langileen administrazio-atalek jarriko dute parte-hartzaileei baremoaren gainerako idatz-zatietan dagokien puntuazioa.

Hemeretzigarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin-behineko ebazpena

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean Batzorde Barematzaileen aktak jaso eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.irakasle.net webguneetan ikusgai jarriko dira; Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan, berriz, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena (onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda jendaurrean jartzen duena) ikusgai jarriko da, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziz ere bai. Baremoaren atal bakoitzean onartutako parte-hartzaile bakoitzak lortu duen behin behineko puntuazioaren zerrenda aipatutako webguneetan soilik erakutsiko da.

2.– Lehiatzaileek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko ebazpen horren kontra, jendaurrean jartzen denetik bost egun balioduneko epean.

Hogeigarrena.– Onartuen, baztertuen eta puntuazioaren behin betiko ebazpena

1.– Aurreko oinarrian aipatutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpena behin betiko egin eta argitaratu egingo da Hezkuntza, Unibertsitate

eta Ikerketa Sailaren www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.irakasle.net webguneetan, bai eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan ere. Ebazpen horrek onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia ere jasoko. Baremoaren atal bakoitzean onartutako parte-hartzaile bakoitzak lortu duen behin betiko puntuazioaren zerrenda aipatutako webguneetan bakarrik egongo da ikusgai.

2.– Aipatutako behin betiko zerrenda horren kontra, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, jendaurrean jartzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean.

Hogeita batgarrena.– Plaza hutsen behin behineko esleipena.

1.– Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren ebazpenaren bitartez destinoen behin-behineko esleipena onartuko da lortutako puntuazioari eta parte-hartzaileen eskaeren lehentasunei jarraituta, eta Ebazpen hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.irakasle.net webguneetan argitaratuko da. Destinoen behin-behineko esleipenaren zerrendak aipatutako webguneetan bakarrik egongo dira ikusgai.

2.– Puntuazioaren guztizkoan berdinketarik gertatuz gero, honela ebatziko da, hurrenez hurren: baremoaren atal bakoitzeko puntuazio altuenari begiratuz eta atalak baremoan duten hurrenkera kontuan hartuz.

Hala ere berdinketak jarraitzen badu, azpiataletan lortutako puntuak aintzat hartuko dira, baina, lehen bezala, baremoan agertzen diren hurrenkerari jarraituz.

Bi kasuotan, arlo bakoitzean kontuan izango den puntuazioa ezin izango da baremoan atal bakoitzerako finkatutako puntuaziorik altuena baino handiagoa izan, ezta, azpiatalen kasuan, azpiatalak sartuta dauden arloak daukan puntuaziorik altuena baino handiagoa ere. Irizpide horiek aplikatzean azpiatal bat edo gehiago sartuta dagoen atalaren puntuaziorik altuenera iristen bada, ez dira kontuan izango gainerako azpiataletan izandako puntuazioak.

Beharrezkoa balitz, berdinketa apurtzeko irizpide gisa erabiliko dira kidegoan sartzeko erabili zen hautazko prozeduraren urtea eta aukeratua izateko lortu zen puntuazioa.

3.– Erreklamazioak eta uko egiteak.

Lehiatzaileek behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net eta www.irakasle.net webguneetan eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan jendaurrean jartzen denetik bost egun balioduneko epean.

Hogeita bigarrena. - Behin behinean esleitutako lanpostuari uko egitea.

Borondatezko lehiatzaileek, aipatutako bost egun balioduneko epean, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egin ahal izango diote, eta uko egite horrek eskabidean agertzen diren eskaera guztietan eragina duela ulertuko da.

Horren ondorioetarako, kontuan izan behar da behin-behineko ebazpenean destinorik ez lortzeak ez duela adierazi nahi behin betiko esleipenean lortuko ez denik.

Hogeita hirugarrena.– Plaza hutsen behin betiko esleipena.

1.– Erreklamazioak aztertuta eta, hala badagokio, aurreko oinarrian aurreikusitako uko egiteak onartu eta gero, destinoen behin betiko esleipena onartzen duen Agindua emango da. Agindu

hori Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratuko da eta bertan lehiaketako destinoen behin betiko zerrendak non eta noiz argitaratuko diren jakinaraziko da.

2.– Deialdia egiten duten espezialitate ezberdinen lanpostuetara lehiatuta ere, destino bakarra esleitu ahal izango da.

3.– Lekualdatze-lehiaketaren behin betiko ebazpenen kontrako errekurtsoak, parte hartu den hezkuntza administrazioa edozein izan dela ere, errekurtsoaren xede den lanpostuari dagokion hezkuntza Administrazioari zuzendu beharko zaizkio, eta bertan ebatzi.

Hogeita laugarrena.– Jarduneko zerbitzura itzultzea.

1.– Eszedentzia aldian egon eta gero lehiaketaren ondorioz jarduneko zerbitzura itzultzen diren irakasleek honako agiri hauek aurkeztuko dituzte dagokien Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan:

a) Eszedentziarako aginduaren kopia.

b) Medikuaren egiaztagiri ofiziala, irakaskuntzan aritzeko gaixotasunik edo beste akats fisiko nahiz psikikorik ez duela adierazten duena.

c) Zinpeko aitorpena edo agindua, diziplina espediente bidez Estatuko Administrazioaren, toki administrazioaren edota autonomia erkidegoko administrazioaren Kidego edo eskala batetik ere banatua izan ez dela egiaztatzeko eta, era berean, funtzio publikoak betetzeko gaitasunik kendu ez diotela egiaztatzeko.

2.– Dena dela, lehiaketa honen bidez lortutako destinoari dagokion irakaskuntza-kidegoa ez den beste Kidegoren batean jarduneko zerbitzuan dauden irakasleek ez dituzte agiri horiek aurkeztu behar izango.

Hogeita bosgarrena.– Jabetzan hartzea.

Destino berriak 2013ko irailaren 1ean hartuko dira jabetzan.

Hogeita seigarrena.– Destinoei uko egiteko ezintasuna.

Lehiaketaren behin betiko ebazpenean esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Aitzitik, irakasle kidego batean baino gehiagotan parte hartu eta destino bat baino gehiago lortu badira, 2013-2014 ikasturtean jardun nahi den destinoa hautatu beharko da, EHAAn behin betiko destinoen esleipenaren Agindua publikatu osteko hamar egun naturaletan. Hala egin ezean, jardun aktiboan egonda parte hartu den kidegoari dagokion lanpostua hartu beharko da jabetzan. Eskaerarik izan ez duten lanpostuak plaza huts joko dira eta hezkuntza administrazioek erabakitako araudiari jarraituz beteko dira.

Hogeita zazpigarrena.– Parte hartu duten tokia ez den beste kudeaketa-eremu batean destinoa lortzen dituztenen ordainsariak.

Oinarri hauetan araututako deialdian beraien jatorrizko lanpostuaren kudeaketa-eremua ez den beste kudeaketa-eremu batean behin betiko destinoa lortzen duten funtzionarioek, eremu berri horri dagozkion ordainketa arauen araberako ordainsaria jasoko dute.

Hogeita zortzigarrena.– Datu pertsonalen tratamendua.

Pertsona parte-hartzaileek aurkeztutako datuak dagokien prozeduran edo jarduketan aurreikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.

Datu horiek inola ere ez dituzte erabiliko beste batzuek, eta laga ere ez zaizkie lagako, ez bada interesdunaren baimen argi eta garbirik, edo ez bada datu pertsonalak babesteko legean jasotako kasuren batean (15/199 Legea, abenduaren 13koa, 6.2 eta 11.2 artikuluak; BOE, 298 zk., 1999ko abenduaren 14koa).

Aipatutako 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, datuak lagatzen dituen pertsonak, edozein unetan, eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurka egiteko eskubideak bete ahal izango ditu, erregelamenduan zehaztuko den moduan.

Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen aurreikuspenera egokitu beharko da.

I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
1.– Antzinatasuna **1.1.–** Aintzinatasuna ikastetxean **1.1.1.–** Parte hartzen deneko ikastetxean behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa etengabeko iraunaldiaren urte bakoitzeko. Azpiatal honetarako lanpostu hutsaren kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak soilik zenbatuko dira. Lehen eta bigarren urteak: Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,1666 puntu hilabete osoko. Hirugarren urtea: Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,3333 puntu hilabete osoko. Laugarren urtea eta hurrengoak: Urte-zatiak honela zenbatuko dira: 0,5000 puntu hilabete osoko.	 2,0000 puntu urteko 4,0000 puntu. 6,0000 puntu urteko	 Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo Administrazio tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen diligentzien egiaztagiria –kidegoa eta espezializazioa adieraziko dituena– edo, kasua bada, Langileen Erregistroan izen-ematearen agiriei dagozkienak. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuen egiaztatzea ofizioz egingo da.

1.1.1 azpiatala baloratzeko kontuan hartuko dira ondorengo egoerak:
– lehiaketan parte hartzeko eskaria egiten den ikastetxetzat joko da honako hau: behin betiko destinoa daukan izangaia plantillakoa den ikastetxea, edo atxikita dagoen ikastetxea, baldin eta bere irakas-destinoa galtzea badakar egoera horrek; horri dagokionez, lanpostu huts hori dagoen kidegoan karrerako funtzionario gisa betetako zerbitzuak soilik kontatuko dira azpiatal honetan.
– Atzerriko ikastetxe publiko espainiarretan edo antzeko kasuetan aldi baterako atxikipenean dauden irakasle funtzionarioen kasuan, atxikipen horrekin etengabe egindako denboraldia hartuko da kontuan azpiatal honetako puntuazioa emateko. Irizpide bera erabiliko da hezkuntza administrazioaren ikerketa eta irakaskuntzari laguntzeko beste zerbitzu edo lanpostu batzuetarako izendatu direnekin ere, izendapen horrek lehen zeukaten irakas-destinoa galtzea ekarri duen kasuetan.
Beren atxikipena bukatu eta behin-behinean jatorriko hezkuntza Administraziora itzultzen direnean, lekualdatze-lehiaketaren ondorioetarako parte hartzean duen ikastetxetzat hartuko da atxikipenean emandako destinoa. Egoki bada, horren ondoren eta behin-behinean beste edozein ikastetxetan betetako zerbitzuak gehituko zaizkio horri.

– Behin betiko gisa lan egiten zuteneko unitatea edo lanpostua ezabatu egin zaielako (epai bat edo errekurtso ebazpen bat bete beharraren ondorioz beren destinoa galdu dutelako, nahitaezko eszedentziatik datozelako edo ordutegia nahikoa izan ez eta zentrotik mugitu behar dutelako) lehiaketan behin-behineko egoeran parte hartzen dutenei dagokienez, parte hartzen duteneko ikastetxetzat joko da behin betiko izaerarekin lan egin izandako azkena, eta ikastetxe horri, hala badagokio, geroztik edozein ikastetxetan behin-behineko izaerarekin egindako zerbitzuak gehituko zaizkio. Gainera, eskubidea izango dute jatorrizko ikastetxeari justu aurreko ikastetxean behin betiko izaeraz egindako zerbitzuak gehitzeko. Hala badagokio, lanpostua behin eta berriro ezabatu zaienen kasuan, lanpostuak ezabatu zitzaizkien ikastetxeetan behin betiko izaeraz emandako zerbitzuak gehituko zaizkie.
Ezabatutakoa ez den behin betiko beste destino bat izan ez bada, jatorrizko ikastetxean berau lortu baino lehen behin-behinean emandako zerbitzuak metatzeko eskubidea izango da eta kasu horretan, eman beharreko puntuazioa baremoaren 1.1.2 azpi-atalean xedatutakoaren araberakoa izango da.

– Aurreko bi azpiataletan xedatutakoa aplikagarri izango zaie, halaber, destinoko herriaren aldaketadun lekualdatzeko diziplina-zigorra betez beren destinoa galdu eta horregatik lehiaketan parte hartu dutenei.

– Behin betiko izaerarekin aurrez betetzen aritutako lanpostua ezabatu ostean behin betiko lehen destinoa lortzen denean, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako ikastetxean emandako zerbitzu gisa honako hauek hartuko dira: lanpostua ezabatu zitzaien ikastetxean egiaztatutako zerbitzuak eta, hala badagokio, aipatu ezabatzearen ostean behin-behinean emandako zerbitzuak. Aipatutako irizpide hori bera aplikatuko zaie ere epai bat edo errekurtso ebazpen bat bete behar izanagatik, nahitaezko eszedentziatik etortzeagatik edo ordutegia nahikoa izan ez eta zentrotik mugitu behar izanagatik, aurreko destinoa galdu eta lehenengo destinoa lortu dutenei.

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
1.1.2.– Aldi baterako egoeran karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko, beti ere egoera horretatik parte hartzen bada: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1666 puntu emango dira hilabete osoko. Lehiaketa bidez lortutako behin betiko lehenengo destinotik borondatez parte hartzen duten karrerako funtzionarioen kasuan, 1.1.1 azpiatalari dagokion puntuazioari azpiatal honetan lortutakoa gehituko zaio. Destino berri bat lortzen denean, ezingo da puntuazio hau gehitu.	2,0000 puntu.	Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo Administrazio tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria edo, kasua bada, Langileen Erregistroan izen-ematearen agiriei dagozkienak. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuen egiaztatzea ofizioz egingo da.
1.1.3.– Zailtasun berezikotzat sailkatutako lanpostu edo ikastetxeetan karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1666 puntu emango dira hilabete osoko. Puntuazio hori 1.1.1 edo 1.1.2 azpiataletan lortutako puntuazioari gehituko zaio. Aitzitik, ikastetxetik kanpo zerbitzu berezitan, zerbitzu-batzordetan, ikasketa-baimenekin edo antzekoekin egindako denbora ez da azpiatal honetan kontuan hartuko.	2,0000 puntu.	– Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria, lanpostuak edo ikastetxeak sailkapen hori duela adieraziko duen organo berak emandako egiaztagiriarekin batera edo – aipatu lanpostu edo ikastetxean benetan eskaini diren zerbitzuen hasiera- eta amaiera-datak bilduko dituen Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako egiaztagiria. Egiaztagiri horretan, aipatu lanpostu edo ikastetxeak zailtasun bereziko sailkapena duela zehaztuko da.
1.2.– Antzinatasuna kidegoan **1.2.1.–** Lanpostu hutsaren kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario gisa jarduneko egoerako benetako zerbitzuetan egindako urte bakoitzeko: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1666 puntu emango dira hilabete osoko.	2,0000 puntu.	Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo Administrazio tituluaren edo karrerako funtzionario izendatu zutenetik izandako jabetza eta kargu-uzteen izapideen egiaztagiria edo, kasua bada, Langileen Erregistroan izen-ematearen agiriei dagozkienak. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean emandako zerbitzuen egiaztatzea ofizioz egingo da.
1.2.2.– LOEk aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario gisa benetan betetako zerbitzuak, kidego bereko edo goragokoak, urte bakoitzeko: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,1250 puntu emango dira hilabete osoko.	1,5000 puntu.	
1.2.3.– LOEk aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario gisa benetan betetako zerbitzuak, kidego beheragokoak, urte bakoitzeko: Urte-zatiak zenbatzeko orduan, 0,0625 puntu emango dira hilabete osoko.	0,7500 puntu.	
-Idatz-zati honetan aurreikusitako kasuetan, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionarioei, ikastetxeko zein kidegoko antzinatasunerako, dagokien irakasleen kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak baloratuko zaizkie, eta baita antzinako Batxilergoko eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedradunen eta Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen Eskoletako Amaierako Irakasle Numerarioen kidegoetan karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuak ere.		

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
–1.2.2 eta 1.2.3 idatz-zatietan aipatutako zerbitzuak batera bete diren urteetan ez dira kontuan hartuko edo, 1.1.1 edo 1.1.2 idatz-zatietako zerbitzuekin aldi berean izan direnean. – 1.1.1, 1.2.1, 1.2.2 eta 1.2.3 idatz-zatien ondorioetarako, zerbitzu berezietan egin diren zerbitzuak hartuko dira kontuan, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 87. artikuluan aurreikusitako ataletan horrelakotzat beren-beregi adierazi direnean. Aipatutako lege horren aurreko xedapenek ezarritako egoera berdinak ere kontuan hartuko dira. Era berean, ondorio hauetarako, ahaideak zaintzeko hartutako lan-utzialdiaren denbora ere kontuan hartuko dira, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 89.4 artikuluaren arabera eta denbora hori ezingo da hiru urtetik gorakoa izan.		
2.– katedradunen kidegokoa izatea Bigarren Hezkuntzako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Arte Plastiko eta Diseinuko katedradunen kidegoetako karrerako funtzionario izateagatik:	5,0000 puntu.	katedradunen kidegokoa izatea adierazten duen Hezkuntza Administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria edo administrazio-tituluaren edo egiaztagiriaren kopia konpultsatua edo, hala badagokio, izendapenaren berri ematen duen Buletin edo Aldizkari Ofiziala. Euskal Autonomia Erkidegoko katedradunen kidegokoa izatea ofizioz zenbatuko da.
3.– Merezimendu akademikoak Atal honetan baloratu ahal izateko, Estatu espainiarrean baliozkotasuna duten unibertsitate titulu ofizialak soilik hartuko dira kontutan. (Ikusi hirugarren xedapen osagarria)	**10 puntu, gehienez ere.**	
3.1.– Doktoregoa, graduatu ondokoak eta aparteko sariak: **3.1.1.–** Doktore titulua izateagatik:	5,0000 puntu.	Tituluaren kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulazioaren egiaztagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.
3.1.2.– Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den eta lortzeko gutxienez 60 kreditu eskatzen dituen Masterraren unibertsitate-titulu ofizialagatik:	3,0000 puntu.	
3.1.3.– Ikertzeko Nahikotasunagatik edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diplomagatik. Merezimendu hori ez da baloratuko Doktore titulua egiaztatzen bada:	2,0000 puntu.	Dagokion ziurtagiri-diplomaren kopia konpultsatua.
3.1.4.– Doktorego, lizentziatura edo graduan aparteko sariak lortu izanagatik edo, Musika Kontserbatorio Nagusiek emandako titulazioen kasuan, goi-mailan ohorezko aipamena lortu izanagatik:	1,0000 puntu.	Hori egiaztatuko duen agiriaren kopia konpultsatua.
3.2.– Unibertsitateko bestelako titulazioak: Izaera ofizialeko unibertsitate-titulazioak, lehiaketan parte hartzeko aukeratutako kidegoan sartzeko oro har baldintza gisa aurkeztu ez badira, honela baloratuko dira:		
3.2.1.– Gradu-titulazioak: Graduaren unibertsitate-titulu ofizialagatik edo baliokideagatik:	5,0000 puntu.	Tituluaren kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria edo titulazioaren egiaztagiri osagarria, hala badagokio, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) edo 2007ko abuztuaren 13ko Aginduan (21eko BOE) edo unibertsitate-titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuan (abuztuaren 6ko BOE) aurreikusitakoaren arabera.

MEREZIMENDUAK	BALORAZIOA	EGIAZTAGIRIAK
3.2.2.– Lehen zikloko titulazioak: Diplomatura, ingeniaritza tekniko, arkitektura tekniko edo legez horien baliokidetzat jotako bigarren edo gainerako tituluengatik eta lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren baten lehen zikloari dagozkion ikasketengatik: A2 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez da atal honetarako baloratuko, inola ere ez, lehen titulua edo izaera horrekin aurkez daitekeen beste edozein ikasketa. A1 azpitaldeko irakasle funtzionarioen kasuan, ez zaie atal hau baloratuko, inola ere ez, izaera horretako titulu edo ikasketak aurkeztutako lizentziatura, ingeniaritza edo arkitekturaren lehen titulua lortzeko gainditu behar izan badituzte. Ez dira merezimendu gisa aurkeztutako ziklo luzeko beste titulazio akademiko batzuk lortzeko beharrezko diren lehen zikloak baloratuko.	3,0000 puntu.	Lortutako titulu guztien kopia konpultsatua edo tituluaren emate-eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria, 1988ko uztailaren 8ko Aginduan (13ko BOE) xedatutakoaren arabera. Lizentziatura, ingeniaritza edo arkitektura titulua aurkeztuz gero, 2. zikloko tituluari dagozkion puntuak onartuko dira, beste ondoriorik gabe. Lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritzaren lehen zikloari dagozkion ikasketen balorazioa egiteko, aipatu titulu edo zikloak lortzeko beharrezko irakasgai edo kreditu guztiak gainditu direla berariaz adieraziko duen egiaztagiria.
